

**Presioa, energia, potentzia
AZTERKETA**

Izena

Kurtsoa


1 Ondoko irudian 2 kg-ko gorputz bat daukagu eta abiatzen da 20 m/s-ko abiadurarekin, "C" punturaino iristeko (ez doa gorago). Kalkulatu:

- "B" puntuan izango duen energia zinetikoa [0,5 puntu]
- "B" puntuan izango duen abiadura [0,5 puntu]
- "A" puntuan izango duen abiadura [0,5 puntu]
- "C" puntuan izango duen altuera [0,5 puntu]

Bidean ez dago marruskadura-indarra ezta kanpoko indarririk ere.

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 15 minutu




2 10 kg-ko gorputz batek 5 m/s-ko hasierako abiadura du eta horizontalki mugitzen da. Kalkulatu 80 m ibili ondoren izango duen abiadura, indar hauek agertzen badira bide horretan:

- 25 N-eko marruskadura-indarra bide osoan
- 40 N-eko laguntza-indarra (higiduraren noranzkoan) 60 m-tan


PUNTUAZIOA: 2 PUNTU

Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu



3 Kalkulatu zenbateko indarra egin behar den (indar minimoa) prentsa hidrauliko honetan 50 kg-ko masa altxa ahal izateko.

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU
ESTIMATUTAKO DENBORA: 10 MINUTU



4 Garabi batek 400 kg-ko karga igotzen du lurretik 40 m-ko altuerara. Garabi horren potentzia 20 ZP-koa bada, kalkulatu

- Garabi horren potentzia watt-etan [0,5 puntu]
- Garabi horrek behar duen denbora karga igotzeko [1,5 puntu]

1 ZP = 736 W

PUNTUAZIOA: 2 PUNTU
Ariketa egiteko behar den denboraren estimazioa: 10 minutu



© www.interempresas.net